

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
<b>VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO</b>
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Viana eta Jurramendiko Mankomunikateko Erribera urez hornitzeko proiektua PSIS dela esan dute

*30,2 milioi euroko aurrekontua du proiektuak eta helburua eskualde horretako uraren banaketaren hobetzea da, kopuruaren eta kalitatearen aldetik*

Lunes, 27 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, Viana eta Jurramendiko Mankomunitateko erriberako beste herri batzuk urez hornitzeko Jurramendiko Mankomunitatearen proiektua Udalaz Gaindiko Proiektu Sektorialtzat (PSIS) jotzea erabaki du. Proiektuak 30,2 milioi euren aurrekontua du.

Jardueraren helburua inguruko uraren banaketa hobetzea da, bai kopuruari bai kalitateari dagokionez, izan ere, orain dagoen sarearen gaitasuna ez da egungo eta etorkizuneko beharriari erantzuteko beste. Gauzak horrela, eskualdeko ekonomia garatzen laguntzea da asmoa, industriaren zein turismoaren eta jolaserako alorrei dagokionez. Eskualdea 16 herri osatzen dute. Obrek 36 hilabete iraungo dute.

Azpiegitura berriak dagoeneko daudenetara, hau da, depositu erregulatzailerara eta Antzineko putzura, eta Mendazara, Piedramillerara, Sorladara, Etaiura eta Olexoara ura banatzeko sarera lotuko dira, helburu hauek lortzeko:

1. Uraren banaketa hobetzea, kopuruari zein kalitateari dagokionez, Ebro ibaiaren ondoko Erriberako herrietara, esate baterako, Elizagorria, Mendabia, Lodosa, Sartaguda (geroago), Cárcar eta Andosilla.

2. Mendabiaren eta Lodosaren arteko inguruko azpiegitura hidraulikoa jartzen dela ziurtatzea eta Elizagorriara ura banatzen dela bermatzea.

3. Viana ura banatzeko Jurramendiko Mankomunitateko sistema orokorrera gehitzea banaketa hobetzeko, bai kopuruari, haren garapena eta hazkuntza dakartzan beharriari berriak barne hartuta, bai kalitateari dagokionez, gaur egun ura Ebro ibaitik ateratzen da eta.

### Azpiegituren deskribapena

Proiektuko azpiegiturak ondorengo udalerrietako lursailak hartzen ditu: Mendaza, Sorlada, Mues, Los Arcos, Piedramillera, El Busto, Santsol, Elizagorria, Torres del Río, Bargota, Viana, Mendabia, Sesma, Lodosa, Cárcar eta Andosilla.

Proiektuko sarea bi elementu motak osatzen dute: uraren tutueria eta eraikinak. Tutueria berriaren luzera 60,5 km da gutxi gorabehera, eta

emaria, gehienez, 450 l/sg-koa izango da.

Tutueria bi adarretan dago banatuta:

- A adarra edo nagusia: Sorladako loturatik hasi eta Andosillarantza joango da; 47,6 km-ko luzera izango du. Hasieratik (Mendaza) Los Arcoseraino, oraingo hodiekin paralelo jarraituko du. Tarte horretan 500 mm-ko diametroa izango du hodiak. Los Arcos eta Lodosa arteko erdiko tarterako, oraingo bidea ez bezalakoa egitea proposatu da. Tarte horretako zati batean 500 mm-ko diametroa izango du hodi batek eta beste batek 400 mm-koa. Azkeneko tarte, Lodosatik Andosillaraino doana, oraingo hodiekin paralelo joango da, eta 250 mm eta 200 mm-ko diametroko hodi bana izango du.

- B adarra: A adarretik hasiko da, Elizagorriatik gertu, eta Vianako industrialdeko depositua hornituko du eta A-12 autobia jarraituko du. Industrialde horretatik Vianara ura helarazteko, Ebro ibaiaren ondoko ponpaketa bultzatzeko oraingo tutua tutu berrira lotuko da, eta hartune bat utziko da industrialdeko depositua betetzeko. 12,9 km-ko adar horrek 400 mm-ko diametroa izango du eta zati txiki batean 350 mm-koa.

Gobernuak proiektua onetsi ondoren, jendeari horren berri emango zaio.

Bestalde, honako hauek dira proiektuan barne hartu diren eraikinak:

- Mendaza P-2 putzua eta ponpaketa estazioa handitzea.

- Elizagorrian depositu bat eraikitzea. 750 m<sup>3</sup>-ko edukiera izango duten bi ontzik eta giltzen ganbera batek osatuko dute. Eraikinak eta horren urbanizazioak 1.125 m<sup>2</sup>-ko azalera hartuko dute. Eraikineraren sartzeko 6 m zabal eta 16 m luze den bide berri bat egin behar da.

- Vianan depositu bat eraikitzea. 1.500 m<sup>3</sup>-ko edukiera izango duten bi ontzi eta goitik sartzeko etxetxo bat egingo dira. Eraikinak eta horren urbanizazioak 1.360 m<sup>2</sup>-ko azalera hartuko dute. Depositua horretarako ez da sarrerarik proposatu oraingo deposituaren ondoan dagoelako.

- Andosillako depositu berria. 1.500 m<sup>3</sup>-ko edukiera izango duten bi ontzik eta giltzen ganbera batek osatuko dute. Eraikinak eta horren urbanizazioak 1.910 m<sup>2</sup>-ko azalera hartuko dute. Eraikineraren sartzeko 6 m zabal eta 26 m luze den bide berri bat egingo da.

Eraikin guztiak morteroz estalitako hormigoizko blokez eraiki eta kanpoaldean 2 m altuko metalezko sare plastifikatu bat jarritz babestuko dira. Sartzeko bideak hormigoizko masarekin eta asfaltozko aglomeratuarekin zolatuko dira.